

# UdalERRI euskaldunen eguna

## UdalERRI euskaldunen Eguna Leitzan izango da aurten, maiatzaren 28an, eta UdalERRI euskaldunek egindako ekarpena aitortzeko hainbat ekitaldi izango da

UEMAko kide diren udalERRIEKIN ez ezik, Euskal Herri osoko gainerako udalERRI euskaldunen parte-hartzearekin ospatuko da aurten ere UdalERRI Euskaldunen Eguna. Leitzako Udala eta UEMA elkarlanean hasi ziren eguna antolatzen, eta berenala elkartu zitzaizkien Leitzako hainbat elkarte. Guztien artean, adin guztietarako eta egun osorako egitaraua osatu dute: UEMAREN batzar nagusia eta ekitaldi instituzionala izango da, baina baita herrien arteko kirolak, haurrentzako ikuskizuna, bazkari herrikoia eta kontzertuak ere.

UdalERRI Euskaldunen Eguna aurten Leitzan ospatzeko aukera mahai gainean izan orduko, Leitzako Udalak eta bertako hainbat elkarte eta kultur eragilek bat egin zuten eguna antolatzeko talde-eragilean.

Honela, azken hilabeteotan, UEMAZ, Leitzako Udalez eta Arano, Areso, Goizue- ta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaz gain, beste hainbat eragile ereburu-belarri aritu dira UdalERRI Euskaldunen Eguna antolatzeko bileretan. Besteak beste, Denok Bat Guraso Elkartea, Aurrerako dantzariak, Aurrera Elkartea, Kultur Taldea, Ateka- beltz gaztetxea, Karrape irratia, Kiliklon ekoizpenak edota Bertso Eskola.

Guztien artean, egun osorako hainbat ekitaldi antolatu dituzte maiatzaren 28rako, adin eta gustu guztietarako eskaintza eta festa eguna osatu nahian: zenbait udal- leri euskaldunen arteko herri kirolak, bazkari herrikoia, bazkalostean kantaldia eta haurrentzako ikuskizuna, egun osoan zehar kale animazioa, elektrotxaranga, eta eguna amaitzeko baita kontzertuak ere.



Azken aldiz Tolosak hartu zuen UdalERRI Euskaldunen Eguna, 2014an. Ohi bezala, ekitaldi instituzionalaz gain, herritarrek jaia eta aldarrikapena uztartzeko eta ondo pasatzeko hainbat ekitaldi ere izan zen.

**Ekitaldi instituzionala eta UEMAREN batzar nagusia ere izango dira** Euskararen arnaguneak sendotzeko eta herritarren kontzientzia eragiteko, instituzioen, eragileen eta herritarren arteko elkarlana bultzatzea izan ohi da UdalERRI Euskaldunen Egunaren asmoetako bat, hasieratik. Festa giroko ekitaldiez gain, beraz, izaten da ekitaldi instituzionalik ere.

Goizean, esaterako, udal ordezkariak UEMAREN batzar nagusia egingo dute Leitzako udaletxean, eta eguerdian, be-

rriz, ekitaldi instituzionala izango da herriko plazan.

Batzar nagusian, azken hilabeteotan UEMAn sartzeko eskaera egin duten udal berriak onartzea espero da: Dima, Ziortza-Bolibar eta Legorreta. Eguerdiko ekitaldi instituzio- lean, berriz, udalERRI euskaldunek duten garrantzia nabarmenduko dute, eta baita azken 25 urteotan euskararen normalizazioari egin dioten ekarpena ere. Erakunde publikoetako, euskalgintzako zein beste hainbat alorretako ordezkariak ere izango da ekitaldian.

# L EITZA, maiatzak 28

## EGITARAUA

- 09:00. Diana TXISTULARIEKIN. HERRIKO kaleetan zehar.
- 10:00. Arnaguneen tailerra. AtekaBeltz gaztetxean.
- 10:00 UEMAREN batzar nagusia. Udaletxean.
- 11:30. Herrien arteko kirolak. Herriko Plazan.
- 12:30. Ekitaldia: 'UdalERRI euskaldunak, 25 urte euskara hauspotzen'. Leitzako Aurrera Dantza Taldearen eta Jeiki abesbatzaren parte-hartzearekin.
- 13:15. Flash moba: 'Euskara hauspotzen'.
- 15:30ak aldera. Kantaldia, Angel Mariezkurrena abeslariarekin.
- 18:00. Haurrentzako ikuskizuna: DJ Porru. Kiliklon ekoizpenak.
- 19:30. R Ke R elektrotxaranga, herriko kaleetan barrena.
- 23:30. Kontzertua: Lur J eta Akort. AtekaBeltz gaztetxean.

### Oharrak:

- Eguraldi onarekin, ekitaldi nagusiak herriko plazan izango dira. Euria egingo balu, berriz, Leitzako frontoian.
- Bazkari herrikoirako txartelak alde zurretik eskatu behar dira. Egunean bertan ezingo da txartelik eskuratu. UEMAREN 943 816699 telefonora deituta.



UEMA sortu eta hiru urtera Leitzan ospatu zuten UEMA Eguna, 1994ko maiatzaren 22an. Festa egun ederra izan zen, eta erakundeetako eta alderdietako ordezkariak ere izan ziren ekitaldi instituzionalean. MARMARI aldizkaria.

## HAINBAT HERRITAKO ESPERIENTZIAK TRUKATUKO DITUZTE, ARNAGUNEI BURUZKO MINGEGIAN

Festa eta aldarrikapena uztartuz, ondo pasatzeko eguna izan ohi da UdalERRI Euskaldunen Eguna, baina lanerako eta hausnartarako tartea ere izaten da egunean zehar. Goizean, zehazki, hainbat herritako esperientziak konpartitzeko aukera izango da, arnaguneei buruzko mingegian.

UEMAk, udalekin elkarlanean, arnaguneei buruzko tailerrak antolatu ohi ditu udal- leri euskaldunetan. Hauetan, euskararen normalizazio prozesurako giltzarriak diren elementuak aurkezten dira, eta baita herri mailan eragiteko aintzat hartzeko esparruak



Arnaguneei buruzko tailerra antolatu zuen martxoan Oiartzungo Udalak, eta erantzun ederra izan zuen.

definitu ere. Ondoren, identifikatzen diren hutsuneak gainditzeko, herrian bertan egin daitekeenari buruz hausnartzen dute parte- hartzaileek.

Herri ezberdinetan hausnartutakoaz elkar- rrekin hitz egiteko eta esperientzia konpar- titzeko aukera izango da Leitzan izango den arnaguneen mingegian.



# udalerrri euskaldunen eguna

Leitzan  
Maiatzak 28

25 urte  
euskara  
hauspotzen

09:00

Diana

txistulariekin.

Herriko kaleetan zehar.

10:00

Arnasguneen tailerra.

Atekabeltz gaztetxean.

10:00

UEMAren Batzar Nagusia. Udaletxean.

11:30

Herrien arteko kirolak. Herriko plazan.

12:30

Ekitaldia: 'Udalerrri euskaldunak, 25 urte euskara hauspotzen', Leitzako Aurrera dantza Taldearen eta Jeiki abesbatzaren laguntzarekin.

13:15 Flash moba, 'Euskara hauspotzen'.

14:30 Bazkari herrikoia.

Bazkalosteian, kantaldia, Angel Mariezkurrena abeslariarekin.

18:00 Haurrentzako ikuskizuna: DJ Porru (Kiliklon ekoizpenak).

19:30 R Ke R elektrotzaranga, herriko kaleetan zehar.

23:30 Kontzertua: Lur J eta Akort. Atekabeltz gaztetxean.

Esku artean duzun *Berripapera* urtean bi aldiz banatzen da UEMako kide diren herrietako postontzietan. UEMaren berri izan nahi duenak, ordea, sarean ere aukera zabala eta hurbila du, urte osoan zehar. Webguneko edizio jarraituaz gain, sare sozialetan ere aurki daiteke UEMaren berri. Argitalpenak, berriz, Issuu bidez irakurri daitezke, PDFan. Emari hilabetekaria, esaterako.